

Henning Mankell
Ohe elurtuan lo egin zuen mutikoa
Itzultzailea: Juan Mari Mendizabal
Erein, Perzebal bilduma
Donostia, 2003

Gaztea bere arazoan aurrean, bakarrik

Lan koherente eta bikaina egiten ari da Erein argitaletxea Henning Mankell-en Joel pertsonaia gazteari buruzko tetralogia argitaratzeko orduan (batez ere, egile beraren Kurt Wallander detektibearen eleberriekin Tusquets argitaletxeak egindako anabasarekin konparatuta). *Izarretara bidean zihoan txakurra* (2001) eta *Itzalak luzatu egiten dira ilunabarrean* (2002) argitaratu eta gero, berriki plazaratutako *Ohe elurtuan lo egin zuen mutikoa* hirugarren entrega hau irakurtzeko aukera dugu orain.

Joel Gustaffson protagonista handitzen ari da, eta nerabezaroan bete-betean sartzen; hori dela eta, bizileku duen Suedia iparraldeko herri txikiko arazo ugarietz gainera, barruan dituen kezkek ere gero eta handiagoak dira. Gaztea bere arazoan aurrean, bakarrik: amak etxetik ihes egin zuenetik aita Samuelekin bizi da Joel, baina aitak kanpoan lanean ematen du ia egun osoa; eskolakideekin ez da ongiegi moldatzen, eta bere kabuz ibiltzea nahiago du; eta hori guztia gutxi balitz, herri isolatu batean bizi da, babes gabearen sinbolo bihurtu den elurraz inguratuta (etekin handia ateratzen dio horri Mankellek, Joelen istorio guztiak elur-aroren hasieran kokatuta); tren geltokia dago, baina bertako ordutegiaren taulan honakoa idatzi du norbaitek. “Hemen ez da trenik gelditzen. Mozoloak bakarrik gelditzen dira hemen”.

Urte berrirako Joelek bere buruari ezarritako promesa eta eginbeharrak jada ez dira ume batenak, gazte batenak baizik: biziaren laburrarekiko kezkek, sexuarekiko jakinmina, bizitzari aurre egiteko gogortzeko beharra. Izan ere, Gertrude sudurrik gabeko emakumeak esan dion bezala, “uste dut heldua izateko bidean zaudela”.

Aipatzekoa da Mankellen trebezia egoerak maisuki erakusteko, noiz poetikotasunez, nerabearen psikologia ezin hobeto islatzeko (12. atala), noiz erabateko naturaltasunez, Sonja neska helduarekiko enkontruaren kasuan bezala, 19. atalean, noiz patetikotasunez, aitaren alkoholzaletasun errekurrentearen aurrean Joelek erakusten duen ezintasuna kasu.

Baina, halako batean, Joel bakarti eta kezkatua heroi bihurtzen da gehiegi pentsatu gabeko balentria handi bati esker, herriaren onespina jasotzen du eta, hori baino inportanteagoa dena, bere lehen musua ere bai.

Manu Lopez Gaseni